



LOKAILLUAK



1. Ariketak egin baino lehen irakurri arretaz informazio hau:

Testu bat idatzi nahi dugunean ideia asko esan nahi ditugu askotan, ezta?
Batzuetan ez dakigu ideia horiek nola lotu, ezta? Beste batzuetan ez dakiguna da
nola hasi testuak, ezta?



Ba.....zuentzako **konponbidea** daukagu....

LOKAILLUAK!!!!

Baina...zer dira horiek?

Lokailuak hitz solteak dira, ideiak
lotzeko balio dute eta mota
askotarikoak daude.

Gaurkoan bi motatako lokailuak
ikasiko ditugu:

HASIERAKOAK

Testuak edo esaldiak hasteko balio dute

- ★Hasteko...
 - *Adb. Hasteko, aukeratutako herrialdearen klima azaldu behar da.
- ★Lehenik...
 - *Adb. Lehenik, bidaiari zenbat egun emango dituzun pentsatu behar duzu.
- ★Lehenengo eta behin...
 - *Adb. Lehenengo eta behin Eiffel Dorrea ikusiko dugu.

IDEIA BERRIAK GEHITZEKO

Idea berriak azaltzeko balio dute.

- ★Horretaz gain,
 - *Adb. Horretaz gain ez ahaztu Finlandian hotz handia egiten duela.
- ★Gainera,
 - *Adb. Gainera, Errumaniara bidaiatzea erabakitzen baduzu, ikusiko duzu interes handiko herrialdea dela.
- ★Era berean,
 - *Adb. Era berean, Londreseko jendeak ohitura dauka garraio publikoa erabiltzeko.
- ★.....ere.
 - *Adb. Museoak eta erakusketak merkeak dira ere.
- ★.....baita ere.
 - *Adb. Haurrak prezio bereziaren barne geratzen dira eta adinekoak (65 urtetik gora) baita ere.

2. Egin jarraian dituzun ariketa hauek ikasitakoa praktikan jartzeko:

*** BETE HUTSUNEAK TAULAN DITUZUN LOKAILUEKIN**

Lehenengo eta behin	lehenik
baita ere	gainera

oso garrantzitsua da herrialdea Europar Batasunean dagoen ala ez jakitea, eta hala bada noiz sartu zen jakitea . Bilaketak egiteko, interneten, bilatzailean gure herrialdearen izena idatziko dugu. Bigarrenik, Europar Batasunaren inguruan zer jartzen duen ikusiko dugu. Oso lan erraza izango da, , azken entregarako lana aurrezten ariko gara.

*** IDATZI ZEIN DEN LOKAILU EGOKIENA ESALDI HAUETAN:**

☞ **Era berean/Lehenik** haurren sarrera merkeagoa da museoan sartzeko.

☞ Sarrera arruntarekin egun osoan sartu ahal izango zara jolas parkera, **ere/horretaz gain** sarrera horrekin bi pertsonentzako menua izango duzu museoko jatetxerako.

☞ **Lehenengo eta behin / Gainera** zure dokumentazioa erakutsi beharko duzu aireportuan, gero, kontroletatik pasa beharko duzu.

*** BETE HUTSUNEAK BEHEKO TESTU HONETAN FITXA HONETAN LANDU DITUGUN LOKAILUAK ERABILIZ (pista gisa lokailuak duen hizki bat daukazu).**

Hasteko, nire bidaiaren egitaraua aurkeztuko dizuet. k, izan beharreko dokumentazioa azalduko dut, g dokumentazio hori gordetzeko gomendioak emango dizkizuet. Horretaz gain, egunero zer egingo dugun azalduko dizuet eta horren arabera maletan zer sartu e .